

Euskara informatikaren aroan txertatu duela eta, Abadia saria Ixa taldeari

" />

Asteartea, 2013ko abenduak 3 - 10:03

Harian

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

Harian | I

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Harian](#)



2013-12-03

Euskara informatikaren aroan txertatu duela eta, Abadia saria Ixa taldeari

ARANTXA IRAOLA

Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak, euskara sustatzeko egindako ahaleginak eskertuz, Ixa taldeari eman zion atzo arratsaldean Anton Abadia saria. 1996an eman zuen lehenengoz sari hau Gipuzkoako Foru Aldundiak.

«Euskararen erabilera arnasberritu, gizarteratu eta hedatzen diharduten» eragileak saritzea da betiere asmoa. Eta Ixa taldearekin, alde horretatik, gizarateak «zor handia» duela aitortu zuen atzo Garitanok. 1987. urtetik EHU Euskal Herriko



Ixa taldekoak, Saria banatzeko ekitaldian. / GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Unibertsitatearen abaroan ari den

talde bat da, hizkuntzaren prozesatze automatikoaren alorrean. Euskara informatikaren arora egokitzeko erabakigarria izan da haien jarduna. Ekoizpen garrantzitsuak egin ditu: Xuxen zuzentzaile ortografikoa, BertsolariXa errimak bilatzeko tresna eta Anhitz euskararako 3D aditu birtuala, besteak beste. 53 ikertzaile ari dira gaur egun: berrogei informatikari, hamar hizkuntzalari eta ikerkuntzarako hiru teknikari. Berebiziko prestaketa dute denek: 31 doktoreak dira; zazpi, doktoregaiak. Zuhar Iruretagoiena artista gazteak egindako oroigarri bat jaso zuen taldearen izenean Arantza Diaz de Ilarraza ikertzaileak. Halaber, Euskara zuzendari Zigor Etxaburuak aditzera eman zuenez, hemendik aurrera beti artista gazteen lanak erabiliko dituzte oroigarri gisara emateko.

Balendin Lasuen idazleari, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak ohorezko Lauaxeta saria eman dio, euskara sustatzeko egindako ahaleginak eskertzeko asmoz. Euskalerriko Lagunen Elkarteko kidea da, eta kultur jarduera askoren suspertzailea; besteak beste, Durangoko Azokaren sustatzaileetako bat izan zela nabarmendu dute aldundiko iturriek. Zaldibarren sortua da Lasuen, 1924an, eta herriko alkate izandakoa.

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**

Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172

berria@berria.info - www.berria.info

Lege Informazioa

